



Arartekoaren ebazpena, 2011ko otsailaren 28koa. Horren bidez, Erandioko Udalari gomendatzen zaio berariaz erantzuna eman diezaien hirigintzako bi lizentziei.

Aurrekariak

- 1.- Kexak honako gai hau dauka hizpide: Erandioko Martiartu auzoan dauden 2. poligonoko 113. eta 114. zenbakia duten landa lurzatietan lanabesentzako txabola bat eraikitzeko hirigintzako lizentziaren inguruan Erandioko Udalak erantzunik eman ez izana.

Erreklamatzailleak ez du udalaren erantzunik jaso, eskaera egin zuenetik hamar hilabete baino gehiago igaro badira eta eskatutako agiri guztiak erantsi bazituen ere. Horregatik, Arartekoaren esku-hartzea eskatu du, haren uziaren inguruko erantzuna jasotzeko.

- 2.- Bidalitako agirietan erreklamatzailleak leku horretan kokatuta dauden eta haren jabetzakoak diren lurzatien gaineko hirigintzako aurretiko zenbait jarduera izan ditu hizpide.

- Lanabesentzako txabola bat eraikitzeko eta lurzattia ixteko baldintzen inguruko kontsulta eskatu ondoren, jabeak -2008ko abenduan- 114 lurzattia garbitu eta ixteko eta 113 lurzatiara sartzeko lehenengo lizentzia eskatu zuen. Udalak lizentzia hori urtarrilaren 26ko 125/2009 Dekretuaren bitartez eman zion.

- 2009ko martxoaren 11n, lurzatietan ur hartunea jartzeko baimena eskatu zuen.

- 2009ko irailaren 3an, salaketa baten ostean, Erandioko Udalak espediente bat hasi zuen udal baimena gairiditzen zuten obrak legeztatzeko. Obra horiek 113 eta 114 lurzatietan gauzatutako lur mugimendua barne hartzen zuten. Asfaltatu gabeko bidea edo dagoen zortasuna kentzeari dagokionez, udalak iritzi zuen udal kontrolaren eremutik at dagoen kontu pribatua zela.

- 2009ko irailaren 17an erreklamatzailleak lurrak mugitzeko eta lurra egokitzeke obrak legeztatzeke eskatutako agiriak aurkeztu zituen.





- 2009ko urriaren 13an, lanabesentzako txabolarentzako obra lizentzia eskatu zuen.

- Udalak bi aldiz (2010eko martxoaren 25ean eta maiatzaren 10ean) eskatu zion lurra egokitzeko lizentziaren lehenengo eskaeraren inguruko agiri osagarriak aurkez zitzan. Erreklamatzailleak eskatutako agiriak aurkeztu zituela dio behin eta berriro.

- 2010eko uztailaren 7an, erreklamatzailleak lanabesentzako txabolarentzako lizentzia eskaeraren inguruko erantzuna izan zuen hizpide berriz ere.

- Erreklamazio hori izapidetzeko onartu ondoren, 2010eko irailaren 30ean, Arartekoak Erandioko Udalari lizentzia eskararen inguruan jarraitutako izapidearen gaineko informazioa eskatu zion.

Gure eskaerari erantzunez, 2010eko azaroaren 15ean, udalak aholkularitza juridikoaren txostena bidali zigun eta, bertan, kontu horren inguruan aurrera eramandako administrazio jarduerak jaso ziren.

Egokitzapen obrak legeztatzeko espedienteari dagokionez eta eskatutako informazioa bildu ondoren, 2010eko ekainaren 9an obren legeztatzearen aldeko txostena egin zela jasota dago informazio horretan. Adierazi duenez: *"en la actualidad este procedimiento se encuentra pendiente de su finalización mediante al adopción por parte del órgano competente de la correspondiente resolución a la vista de los informes emitidos"*.

Lanabesentzako txabola egiteko eskatutako lizentziari dagokionez, eta 2010eko otsailean proiektuaren bitartez aurkeztutako aldaketaren ondoren, eskaera hori zerbitzu teknikoaren txostenaren zain dago oraindik. Edozelan ere, haren ustez, lurzatia egokitzeko obren legeztatzea lizentziaren mende zegoen.

3. Arartekoak Erandioko Udalari lizentzia eskaeraren inguruan jarraitutako izapideari buruzko informazioa eskatu zion.

Hori gorabehera, erakunde honek, ebazpen hau eman denean, ez dauka erreklamatzailleak planteatutako lizentzia eskaerak ebazten dituen ondorengo ezein jardueraren berririk.

Informazio hau ikusita eta kexa egin dutenek alegatutako gainerako inguruabarrak kontuan hartuta, eta edukiak aztertu ondoren, hona hemen ondoko



Gogoetak

1. Landa-katastroaren 2. poligonoko 113 eta 114 lurzatiei inguruan erreklamatzailerak Erandioko Udalaren aurrean egindako lizentzia eskaera batzuei erantzunik eman ez izanak eragin du kexa hau.

Oraindik erantzuteke daude egokitzapen obrak legeztatzeko eskaera, ur hartunerako eskaera eta txabola eraikitzeko obrak lizentzia.

Erakunde honek aurrekarietan azaldutako gestioak egin ondoren, Arartekoak ikusi du ez dagoela erreklamatzailerak asmoari emandako erantzunik.

2. Abiaburu gisa, gogoratu behar dugu interesdunek egiten dizkieten eskaera guztiei berariaz erantzun behar dietela herri-administrazioek.

Horrela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua berariaz jasotzen du herri-administrazio guztiei zuzendutako agindu hori.

Arau horretako zioen azalpenak honako hau xedatzen du: *“lege honen helburua ez da administrazioaren jarduerarik ezari izaera positiboa ematea partikularrek hari zuzentzen zaizkionean. Administrazioaren jarduerarik ezaren izaera positiboa legearen benetako helburua betetzen ez denean ezartzen den bermea da; legearen benetako helburua herritarrek administrazioaren berariazko erantzuna jasotzea eta hori ezarritako epean jasotzea da. Administrazio isiltasunak, nola aldekoa hala kontrakoa izan, ezin du ezarpen juridiko arrunta izan, baizik eta, Administrazioak dagozkion eginkizunak modu eraginkorrean eta arin betetzen ez dituztenean, partikularren eskubideak edukirik gabe gera ez daitezkeen bermatzen du.”*

Horregatik, esan behar dugu herritarrek aurkezten dituzten idazki guztiak izapidetu behar dituela udalak, azkar eta modu eraginkorrean, harik eta espedientea amaitu arte edo behin betiko ebazpena eman arte.





Era berean, esan behar dugu, ebazteko epea amaitu arren, erantzun beharrak irauten duela, eta ebazpena eman behar duen organoaren titularrari diziplinako erantzukizuna sortu ahal diola.

3. Arartekoak hainbatetan salatu du administrazio isiltasuna oso arriskutsua dela. Izan ere, biztanleak babesik gabeko egoeran kokatzen ditu, ez baitakite administrazioak zer egingo duen euren asmoarekin eta eskatutakoaren inguruko erantzuna berrikustea eragozten baitu.

Biztanle horien erreklamazioak bideratu ez direnez eta horiei erantzun ez zaienez, esan dezakegu administrazioak oker jokatu duela eta arartekoaren erakundeak horren berri eman behar du.

Espainiako Konstituzioak berak –103.1. eta 105. artikuluetan– aipatzen du prozedurazko izapide batzuk daudela eta herritarrei benetako erantzuna eman behar zaiela. Alderdi horiek Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 41. artikulua ematen dien administrazio egokirako eskubidea osatzen dute (gutun hori Europarako Konstituzioa ezartzen duen Itunak barneratu zuen).

Alderantziz, administrazio txartzat jo behar da artikulua horiek ezartzen duten eginbide funtzionalaren betebeharra urratzea. Betebehar hori honakoen bidez zehazten da: erreklamazioa jaso izana adierazteko betebeharra, zerbitzu eskudunari bidaltzeko betebeharra eta aurkeztutako erreklamazioei arrazoizko epean erantzuteko betebeharra.

Horiek horrela, arartekoak behin eta berriro nabarmentzen du udalak kexagileen idazkiei alait arinen erantzuteko betebeharra duela.

4. Hizpide dugun kasuan ohartu gara udalak onartzen duela 2. poligonoko 113 eta 114 lurzatietan egindako obrek aldeko txostena jaso zutela 2010eko apirilaren 15ean. Hala ere, 8 hilabete igaro direla kontuan hartuta, udalak ez du argitu zergatik ez den lizentziaren lehenengo eskaera hori behin betiko ebatzi. Lehen adierazi ditugun printzipioekin bat etorriz, behin zerbitzu teknikoaren txostena bilduta, eska daiteke udalak lehenbailehen espedientearekin jarrai dezan eta lizentzia ebatz dezan.

Txabolaren obrei dagokienez, udalak onartzen du kexagileak lizentzia lortzeko eskatzen diren agiriak aurkeztu dituela. Hori horrela bada ere, 10 hilabete igaro ondoren, udalak esan duen gauza bakarria izan da zerbitzu teknikoek agiri horien inguruko txostena egin dezaten zain dagoela.





Halaber, gogora ekarri behar da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 210. artikulua xedatzen duela berriazko ebazpenaren jakinarazpena egiteko gehienezko epea hiru hilekoa dela, eskaera edo eskaeraren hobekuntza aurkezten denetik. Horrez gain, azpimarratu behar da lizentzia ebazteko gehienezko epea igarotzen bada, emantzat joko dela administrazioaren isiltasunagatik.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

3 /2011 GOMENDIOA, otsailaren 28koa, Erandioko Udalari egina

Erreklamatzailleak egindako hirigintzako lizentzia eskaerei lehenbailehen erantzun diezaien, hirigintzako legeetan ezarritakoari jarraiki.

